

«Ana Maria Matute bezala, saiatzen naiz iluntasunean argi-izpi bat zabaltzen»

Jabier Muguruza Idazle eta kantaria

Azken urteotan kantagintzan murgilduta bizi izan da. Orain, hamabost urteko etena hautsiz, 'Hilen logika ezkutua' plazaratu du, hamasei ipuinen bilduma

✪ FELIX IBARGUTXI

Jabier Muguruzak (Irun, 1960) 'Hilen logika ezkutua' publikatu du, hamasei ipuin dakartzan liburua. Aurretik 'Bizitza pusketak' (1996) eta 'Laura kanpoan da' (1999) zituen argitaratuak, biak ala biak kontakizun-bildumak; eta baita haur eta gazteen-tzako liburua batzuk ere.

—Orain dela hamabost urte ateratu zenuen azken literatur liburua. Nolan tarte luze hau?

—Kontatuko dizut gauzak hasieratik. 1992an, Emak Bakia Kluba literatur kluba sortzera zihola, batzuek animatu ninduten parte har nezan, batez ere 'Garziarena' fanzinean idatziz. Garai hartan ezer publikatu ga-

bea nintzen. —literaturaz ari naiz— eta ohore handia iruditu zitzaidan, gonbidapena egindako idazle haiek handiak baitziren, eta erreferenteak gainera. Onartu egin nuen eta, fanzinearekin kolaboratzeaz gain, hasi nintzen ipuin batzuk zirriboratzan. Batzuk ziren umeentzakoak, beste batzuk helduentzakoak, eta hori bai, beti neurri motzekoak. Eta, zuk esan bezala, 1999an publikatu nuen helduentzako bigarten eta azken liburua. Harrezkero hainbat artikulu eta kantu-letra ateratu dut, haurrentzako ipuinak...

—Berriro galdera. Nolan 1999az geroztik helduentzako libururik ez?

—Nik bi adar lantzen ditut, hitza eta musika, eta nahi izan nuen musikan zentratu.

—Fikzioa idaztea lan erosoa da zuretzat?

—Ez da erraza niretzat. Lehen galdetu didazun hori ez daukat garbi zergatik gertatu zen. Eten hori, beharbada, idazteko zailtasunagatik gertatu zen. Kontua da urrundu egin nintzela mundu horretatik. Baina begira nola hasi nintzen berriro: orain dela hiru urte, aspaldiko Garziarena hartan kolaboratzeko eskatu zidan batek deitu zidan esateko ea kolaboratuko nuen Erlea aldikarian. Baiezkoa eman nion eta halaxe idatzi nuen 'Hilen logika ezkutua'.

—Hain zuzen ere, orain publikatu duzun liburuko lehen ipuina, eta bildumari izena ematen diona.

—Buelta asko eman dizkiot lehen aipatu didazun kontu horri: niretzat idaztea zer da, zaila? Nik uste dut arlo horretan konfiantza piska bat faltatu izan zaidala. Musikan ez bezala.

—Baina orain dela hiru urte, 'Hilen logika ezkutua' idatzi zenuelarik, berriro etorri zitzaizun konfiantza.

—Horixe! Tartean bada beste kontu bat: nik uste dut publiko helduarentzat idazteak eskatzen duela—nire kasuan behintzat—jarrera bat. Zure jarraitzaileak obsesibo samarra izan behar du; inguratzen zaituenari beti erme, beti adi ibili behar, oharak hartuz. Eta jarrera hori, bizitzeko, ez da samurra.

—Lehenengo ipuina da liburuari izenburua ematen diona. Inpresioa daukat pieza desberdina dela gainerantzekoan aldean; berak fantasia dauka, besteak errealistak dira, oro har.

—Beti esaten dut eguneroko bizitzara lerratzen naizela errelatoetan nahiz kantuetan. Hala izaten da gehienetan, baina ez beti-beti.

—Musika eta musikariak behin baino gehiagotan agertzen dira ipuinetan. Normala den bezala. Eta, inoiz, musika eta krisialdi ekonomikoa lotu dituzu. Lotura logikoa, ala?

—Bai, kasu honetan ez da lotura ezku-

tua, baizik eta logikoa, ezta? Denok barrutik bizi dugun egoera da. Alde horretatik, literatura luxu bat da, gozamen da. Esate baterako pozik nago edadeko musikari horri buruzko kontakizunarekin. Hanka-sartze bat izan dute argitaratu dioten diskoan, baina inork ez dio ezer esaten; inork diskoa entzun ez balu bezala. Igual gaizki dago nik esatea, baina uste dut eszena adierazgarria dela, gaur egungo egoera deskribatzen duela.

—Zure ipuinetako narratzailea orojakilea da. Esan liteke ariketa estilistikoak ez dituzula maite.

—Ana Maria Matuteren aipu hau gus-tatzen zait: esaten zuen saiatzen zela iluntasunean argi-izpi bat zabaltzen. Nire ahalegina ere hortik doa: errealitate kafkiano samar honetatik hartu detaile edo xehetasunen bat—deigarri egiten zaidana eta gure giza-kondizioa erakusten diguna—eta hura garatu. Eta, Matuterekin jarraituz, argi-izpi bat zabaltu.

—Ipuinen hasieran nobaiten aipu bat agertzen da. Aipuak eurak inspirazio izaten dira zuretzat, istorioak pentsatzeko garaian?

—Errelatoetarako baino gehiago, artikuluetarako izan ohi dira abiapuntu. Badakizu irati publikoarekin kolaboratzen dudala. Aipuak, pasarteak eta bildu egiten ditut, eta gaika sailkatu.

—Hara!

—Almazan handia daukat gainera. Pentsa zenbaterainoko interesa daukadan gai honen inguruan: duela gutxi, Rockdelux aldizkariak elkarrizketa luze eta berezia egin nahi zidan, autelkarrizketa tankerakoa, eta orduan esan nien erantzunak aipuak izango zirela.

—Zure zenbait ipuinek umore-ukitua dute.

—'Zartu, txartu' da esaera zaharra, baina uste dut lortu dudala umorean irabaztea. Beharbada Kiko Venenori harako hura hainbeste aldiz entzuteagatik: «Eze humor que noz defiende de la realidad, ¡Jabier!».

Umorea beharrezkoa da eta uste dut liburuko ipuin gehienetan azaltzen dela.

—Agertzen da kezka sozialik ere. Ipuin bateko protagonistak errumaniar txiro batzuk dira.

—Nire kantagintzan ere, orain arte, dakizun bezala, kezka sozial hori ez da hainbeste agertu, baina azkeneko diskoan askoz gehiago. Eramanezina, sufriezina gertatzen zait erreallitate sozioekonomikoa. Liburu honetan askotan ikusten da krisia, ezinbestean. Aspaldi esan zuen Atxagak, duela hamabost edo hogeitaz urte, eta beharbada piska bat esajertatuz: idazle errealistena naizela.

«Publiko helduarentzat idazteak eskatzen du nire kasuan behintzat-jarrera bat»

«Uste dut literaturan konfiantza piska bat faltatu izan zaidala, musikan ez bezala»



Jabier Muguruza, aste honetan Donostian. ✪ LOBO ALTUNA



HILEN LOGIKA EZKUTUA
JABIER MUGURUZA
Argitaletxea: Erein.
Orrialdeak: 103.
Prezioa: 14 euro.